



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilak 30

Vitoria-Gasteiz, 30 de enero de 2018

Gobernantza eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAREN HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZUAK (ZUZENEAN) 850.000 KONTSULTA BAINO GEHIAGO JASO ZITUEN 2017AN, IA 3.500 EGUNEAN

- Telefonoz, posta elektronikoz eta gailu mugikorren bat-bateko mezularitzaz jasotzen diren kontsulten kopuruak gora egiten jarraitzen badu ere, gehienak hiru hiriburuetakoko bulego presentzialetan jasotzen dira oraindik
- Kontsultarik eta izapidetik ohikoenak etxebizitzarekin, gizarte-gaiekin eta hezkuntzarekin zerikusia dutenak dira
- **ZUZENEAN** zerbitzua 2008an sortu zen, eta orain, hamar urte bete direnean, erabat finkatuta dago Eusko Jaurlaritzaren herritarrentzako arreta-zerbitzu integral eta doako gisa

Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak (**ZUZENEAN**) **853.418 kontsulta jaso zituen 2017an**, hau da, aurreko urtean baino 6.679 gehiago. Batez beste, 3.438 kontsulta eta izapidetan lagundu zuen egunean. 2017an ere, gehienak (% 54,7) era presentzian egin ziren. Horiez gain, % 42,3 012 telefonoaren bitartez egin ziren, % 2,6 www.euskadi.eus online postontziaren bitartez, eta % 0,4, berriz, gailu mugikorren bat-bateko mezularitzaren bitartez. Kontsulta gehien egin ziren hilabetea martxoa izan zen (93.968 kontsulta), eta kontsulta gutxien izan zituen hilabetea, berriz, abuztua (47.406 kontsulta).

GUZTIZKO DATUAK (Kanalaren arabera)

KANALA	ARRETA, GUZTIRA (2017)	EGUNEKO ARRETA (2017)	ARRETA, GUZTIRA (2016)	ALDEA (2016/2017)
Presentziala	466.945 (% 54,7)	1.881 (%54,7)	469.708 (%55,5)	-2.763 (- %0,58)
012 telefonoa	361.406 (% 42,3)	1.456 (%42,4)	356.887 (%42,1)	+4.519 (+%1,26)
Postontzi elektronikoa	22.660 (% 2,6)	91 (%2,6)	18.462 (%2,2)	+4.195 (+%22,7)
<i>Telegram</i>	2.407 (% 0,4)	10 (%0,3)	1.682 (%0,2)	+725 (+%43,1)
GUZTIRA	853.418 (%100)	3.438 (%100)	846.739 (%100)	+6.679 (+%0,78)

Erabiltzaileek erabilitako **hizkuntzari dagokionez**, azpimarratu beharra dago joan den urtean euskaraz egindako kontsulten kopuruak % 35,6ko igoera izan zuela 2016. urtearekin alderatuta. Interakzioen % 14,4 euskaraz egin ziren (122.892 guztira).

Hizkuntzarik erabiliena gaztelania izan zen, lau interakzio-kanaletan (presentziala, telefonoa, postontzi elektronikoa eta *Telegram*). Euskararen erabilera nabarmenagoa izan da 012 telefonoaren erabiltzaileen kasuan.

GUZTIZKO DATUAK (Hizkuntzaren arabera)

HIZKUNTZA	ARRETA, GUZTIRA (2017)	ARRETA, GUZTIRA (2016)	ALDEA (2016/2017)
Gaztelania	707.484 (% 82,9)	738.356 (% 87,2)	-30.872 (-%4,2)
Euskara	122.892 (% 14,4)	90.601 (% 10,7)	+32.291 (+%35,6)
Zehaztu gabe	23.042 (% 2,7)	17.782 (% 2,1)	+5.260 (+%29,6)
GUZTIRA	853.418 (% 100)	846.739 (% 100)	+6.679 (+%0,78)

KANALEN DATUAK (Hizkuntzaren arabera)

HIZKUNTZA	PRESENTZIALA	012 TELEFONOA	POSTONTZI ELEKTRONIKOA	TELEGRAM
Gaztelania	420.251 (% 90)	263.827 (% 73)	20.394 (% 90)	2.070 (% 86)
Euskara	46.694 (% 10)	75.895 (% 21)	2.266 (% 10)	337 (% 14)
Zehaztu gabe		21.684 (6%)		
GUZTIRA	466.945 (% 100)	361.406 (% 100)	22.660 (% 100)	2.407 (% 100)

Erabiltzaileen **sexuari dagokionez**, 2017an ere emakumeek gizonek baino neurri handiagoan erabili zuten **ZUZENEAN** zerbitzua. Zehazki, kasuen % 57,9tan erabili zuten emakumeek. Emakumeek 494.129 kontsulta egin zituzten, hau da, gizonek baino 161.296 gehiago eta aurreko urtean baino 36.043 gehiago.

Kanalak kontuan hartuta, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren erabileraren ehunekoa oso antzekoa izan da gizonen eta emakumeen kasuan.

GUZTIZKO DATUAK (Sexuaren arabera)

SEXUA	ARRETAK, GUZTIRA (2017)	ARRETAK, GUZTIRA (2016)	ALDEA
Gizonak	332.833 (% 39)	358.171 (% 42,3)	-25.338 (-7,07%)
Emakumeak	494.129 (% 57,9)	458.086 (% 54,1)	+36.043 (+7,9%)
Zehaztu gabe	26.456 (% 3,1)	30.482 (% 3,6)	-4.027 (-13,2%)
GUZTIRA	853.418 (% 100)	846.739 (% 100)	+6.679 (+0,78%)

KANALEN DATUAK (Sexuaren arabera)

SEXUA	PRESENTZIALA	012 TELEFONOA	POSTONTZI ELEKTRONIKOA	TELEGRAM
Gizonak	200.787 (% 43)	119.264 (% 33)	9.970 (% 44)	740 (% 31)
Emakumeak	261.489 (% 56)	220.458 (% 61)	12.690 (% 56)	650 (% 27)
Zehaztu gabe	4.669 (% 1)	21.684 (% 6)		1.011 (% 42)
GUZTIRA	466.945 (% 100)	361.406 (% 100)	22.660 (% 100)	2.407 (% 100)

Lurraldeak kontuan hartuta, [ZUZENEAN](#) zerbitzuaren arreta presentzialen bidezkoen kopururik handiena Bizkaian egin zen, Bilbon dituen bulegoetan. 2017. urtean, kopurua 246.841 kontsultara iritsi zen (guztien % 52,9).

GUZTIZKO DATUAK (Lurralde Historiko/hiriburuen arabera)

LURRALDEA	ARRETAK, GUZTIRA (2017)	ARRETAK, GUZTIRA (2016)	ALDEA
Bizkaia/Bilbo	246.841 (% 52,9)	235.325 (% 50)	+11.516 (+4,9%)
Gipuzkoa/Donostia	115.408 (% 24,7)	126.757 (% 27)	-11.349 (-8,9%)
Araba/Gasteiz	104.696 (% 22,4)	107.626 (% 23)	-2.930 (-2,7%)
GUZTIRA	466.945 (%100)	469.708 (100%)	-2.763 (-0,58%)

KONTSULTEN ARRAZOIAK

Kontsulten arrazoiari eta gaiari dagokienez, erabiltzaileen % 61ek informazioa eskatzeko jo dute [ZUZENEAN](#) zerbitzura, % 38k izapideren bat egiteko, eta % 1ek, berriz, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko.

Kontsultak edo tramiteak, oro har, gai hauei buruzkoak izan ziren, hurrenkeran:

- ✓ Etxebizitza
- ✓ Gizarte-gaiak
- ✓ Hezkuntza
- ✓ Segurtasuna eta barne-arazoak
- ✓ Gobernua eta Administrazio Publikoa
- ✓ Lana eta enplegua
- ✓ Justizia
- ✓ Jarduera ekonomikoak
- ✓ Ingurumena

ZUZENEAN: 10 URTE

[ZUZENEAN](#) zerbitzua 2008. urtean sortu zen, eta zerbitzu integrala, publikoa eta doakoa da. Hamar urteren ondoren, euskal herritarrek Euskal Administrazio Publikoarekin harremanetan jartzeko tresna gisa finkatu da. Zerbitzuak 106 pertsonako plantilla dauka, eta, haietatik, 72k modu presentzialean dihardute hiru euskal hiriburuetan, eta gainerako 34ek telefonoz eta bat-bateko mezularitza bidez planteatutako kontsultei erantzuten diete.

10 urte hauetan, hazkunde esponentziala izan du zerbitzuak, eta, orain, lau kanalen bidez eskaintzen du arreta: presentziala (*hiru bulego, bat hiriburu bakoitzean*), telefona (*012*), online postontzia, www.euskadi.eus, eta bat-bateko mezularitza (*Telegram, 688 67 12 34 zenbakiaren bitartez*).

[ZUZENEAN](#) zerbitzuaren bilakaera legegintzaldi honetako helburuetako bat da. Eusko Jaurlaritzak zerbitzuari dagokionez herritarrek Administrazioarekiko interakzioan hautematen duten kalitatea eta barne-kudeaketaren beraren kalitatea zein esku hartzen duten agenteen koordinazioa hobetzeko erronka planteatu du. “*Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020ko Plan Estrategikoak*” bere sei jardun-ardatzen barruan kontuan hartzen dituen ekimenetako bat, hain zuzen ere, [ZUZENEAN](#) zerbitzua garatzea eta hobetzea da, eta, era horretan, pertsonen zerbitzuak erabiltzeko aukera erraztea eta kanal anitzeko zerbitzu eraginkor bat bermatzea.

Gobernantza eta Autogobernua

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAK 2018. URTERAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU, ETA WEBGUNEAN ARGITARATU DU

- Lan-dokumentuan, diru-laguntzen 6 ildo eta 2 sari daude aurreikusita, eta haien zenbateko orokorra ia 12 milioi eurora iritsi da aurten
- Deialdien artean, Euskadiko udalerrietan obrak eta zerbitzuak egikaritzeko laguntzak, Gasteiz erakunde komun en egoitza gisa sustatzeko kanona eta *Elkarlan* eta *Opendata Euskadi* sariak azpimarra daitezke

Gobernu Kontseiluak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2018. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du gaur. Dokumentu hori kudeaketa-tresna programatiko bat da, eta, haren bidez, Sailak bere eskumeneko arloei lotutako jarduerak sustatuko dituzten politika publikoak planifikatuko ditu, diru-laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia hobetuko du, eta informazio publikoaren eskuragarritasuna ahalbidetuko du, gardentasunean eta gobernu onari lotutako jardunbideetan oinarrituta.

Dokumentuak Sailaren kudeaketa-arloek diru-laguntzetarako eta sarietarako egingo dituzten deialdi guztiak biltzen ditu. Guztira, diru-laguntzetarako 6 ildo eta 2 sari dira, eta haien **2018. urterako zenbateko orokorra 11.932.000 eurora iritsi da**. Nagusiki, honako helburu hauek dituzte:

- Toki-administrazioen azpiegiturak eta zerbitzuak sustatu eta hobetzea
- Euskadiko zuzenbide zibil foral eta berezia aztertze eta agente juridikoen artean zabaltzeko zeregina bultzatzea
- Administrazio-kudeaketaren efizientzia hobetzea eta kudeaketa-eredu berriak ezartzea

2018KO DIRU-LAGUNTZAK ETA SARIAK

Toki-administrazioen arloan, diru-laguntzetarako deialdien artean Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun en egoitza gisa sustatzeko kanona azpimarratu behar da. Gasteizko udalarekin sinatutako hitzarmenaren barruan, planak 10 milioi euroko diru-laguntza bideratuko du hiriaren sustapena finantzatzeko, eta, aurreikusitakoaren arabera, beste 20 milioi euro bideratuko dira 2019an eta 2020an. Lan-arlo horretan, gainera, udalerrietan obrak eta zerbitzuak egikaritzeko laguntzetarako deialdiak egingo dira, eta 1.900.000 euroko zenbatekoa izango dute.

Halaber, Euskadiko zuzenbide zibil foral eta bereziari buruzko jakintza akademiko eta espezializatuan sakontzeko jardunen finantzaketa hartzen da kontuan (8.000 euro).

Dokumentuak, halaber, Open Data Euskadi webgunea eta haren ahalmena ezagutarazteko eta datu irekien erabilera eta haien ondoriozko zerbitzuen sorkuntza sustatzeko *Opendata Euskadi 2018 Sarietarako* (6.000 euro) deialdia jasotzen du. Azkenik, antolatutako herritarrek herritarren parte-hartzeari lotutako proiektuen bitartez sortutako balio publikoa agerian uzteko *Elkarlan 2018 Sariak* (18.000 euro) aipatu behar ditugu.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EURO BIDERATUKO DITU ABERE ARRAZA GARBIAK SUSTATZEN DITUZTEN ELKARTEETARA

- **Esnetarako eta haragitarako espezieen aukeraketan eta desagertzeko arriskuan dauden arrazen kontserbazioan diharduten elkarteetara**
- **Finantzatuko dira abere lehiaketetan parte hartzea, liburu genealogikoak sortzea eta kudeatzea, eta kalitate eta errendimendu probak**
- **Nekazaritzako elikagaien balio katea, hau da, kalitateko abeltzaintza, biodibertsitatearen zaintza eta elikadura osasuntsua eta iraunkorra, babesteko politikaren barruan sartzen dira laguntza hauek**

2018an Euskal Autonomia Erkidegoan abere arraza garbien elkarte eta erakundeei emango zaizkien diru laguntzak arautzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen Dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, bere azken bileran. Guztira 350.000 euro emango dira, abere lehiaketetan parte hartzea, liburu genealogikoak sortzea eta kudeatzea, eta kalitate eta errendimendu probak finantzatzeko.

Laguntza horiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzak kudeatzen ditu, eta Nekazaritzako elikagaien balio katea, hau da, kalitateko abeltzaintza, biodibertsitatearen zaintza eta elikadura osasuntsua eta iraunkorra, babesteko politikaren barruan sartzen dira, horiek dira-eta Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (GEPE), legegintzaldi honetan eremu horietako jarduerak jarraituko dituzten ildo nagusiak markatzen dituenak, jasotzen dituen oinarritzko zutabeak.

Hobekuntza programak gauzatuz (kontserbazioa edo hautaketa), arraza hedatuz eta bultzatuz eta errendimenduen kontrola eta balorazio genetikoaren ebaluazioa eginez, arraza garbien liburu genealogikoak kudeatzen dituzten abeltzaintza elkarteentzat dira pasa den urriaren 24an onartutako Dekretuaren baitan iragarritako laguntzak.

Era berean, elkarte horiek lortutako emaitzen zabalkundeaz arduratzen dira eta abereak eta abereen produktuak saltzen laguntzen dute, ekoizpen eraginkorragoa lortzea eta abeltzaintzako ustategiak errentagarriago egitea ahalbidetuta. Euskal Autonomia Erkidegoko landa guneak eta mendiko nekazaritzakoak garatzen eta bultzatzen ere laguntzen dute. Erakunde onuradunen artean dira, baita ere, arraza autoktonoekin lan egiten duten elkarteak, izan ere, horietako batzuk desagertzeko arriskuan daude eta

tratamendu berezia dute beren kontserbaziorako eta beren aldakortasun genetikoa mantentzeko.

Onuradunak eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Xedapen honetan aurreikusten diren diru laguntzak eskuratu ahal izango dituzte abere arraza garbien elkarteek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten badute eta Abere Arrazen Sustapenerako Elkartearen Erregistroan inskribatuta badaude. Elkarte hauek liburu genealogikoa kudeatzeko onarpena eduki behar dute, eta euskal arraza autoktonoak kontserbatzeko, hobetzeko eta sustatzeko xedapenak eta abere arrazen sustapenerako erakundeak arautzen dituztenak bete beharko dituzte. Esnetarako eta haragitarako abere arraza nagusiei eragingo die, bai eta desagertzeko arriskuan dauden arraza autoktono ugari gehienei ere.

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

- Abere lehiaketak antolatzeke eta lehiaketa horietan parte hartzeke gastuak
- Liburu genealogikoak sortzeke edo mantentzeke gastuak
- Ganaduaren kalitate genetikoa eta errendimendua egiaztatzeke proben gastuak

Deialdi honetako laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteke epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Eskatzaileek bide elektronikotik aurkeztu beharko dituzte eskaerak. Beranduenez, Agindua ondorioak sortzen hasi eta hurren sei hilabetean emango da eta jakinaraziko da ebazpena.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

**EUSKO JAURLARITZAK BABES HANDIAGOA EMANGO DIE
NEKAZARITZAREN ETA BASOGINTZAREN SEKTOREAN
KOMERTZIALIZAZIOA HOBETZEN ETA NEGOZIAZIO AHALMENA
HANDITZEN LAGUNDUKO DUTEN SEKTOREKO EKOIZLE TALDEEI**

- Araudi berria onartu du, zeinak basogintzaren sektoreko taldeak barruak hartzen dituen
- Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (GEPE), Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak abian jarritakoa baita, euskal nekazaritzako elikagaien komertzializazioa hobetzea du helburu nagusietako bat

Eusko Jaurlaritza nekazaritzako ekoizleen taldeen eta horien batasun edo federazioen eraketa eta funtzionamendua bultzatzen ari da hainbat eremutatik, izan ere, bere ustez modu eraginkorra da produktuak merkaturatzeko eta ekoizleen sektoreak elikagaien balio katea eratzeko duen negoziazio ahalmena handitzeko. Zentzu horretan emandako azken urratsa izan da ekonomiaren garapeneko eta azpiegituretako sailburuak ekoizle talde horiei aplikatzekoak diren oinarritzko arauak ezartzeko eman duen dekretuaren onarpena.

Exekutibo autonomoak beharrezkotzat jotzen du nekazarien eta basoginen taldeen eraketa piztea eta sustatzea, **eskaintza kontzentratzera eta ekoizpena merkatuaren eskakizunetara egokitzera bideratutako ekintza bateratuen bitartez lehen sektorearen garapen ekonomikoa indartzeko** eta talde horiek nahiko egonkortasunez eta eraginkortasunez eratzten direla egoki kontrolatzeko eta egiaztatzeko. Premisa hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzak abian jarritako Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoan (GEPE) definitutako ildoetan sartzen da, euskal nekazaritzako elikagaien komertzializazioa hobetzea baita planaren helburu nagusietako bat.

Aurreko guztiak eskatzen du **ekoizleen taldeen aitortzari aplikagarrian den erregimen juridiko egokia edukitzea, garaietara egokitzeko eta basogintzaren sektoreko taldeei barruan onartzeko eta beraien baldintzak jasotzeko.**

Hala, onartu berri den dekretuaren arabera, nekazaritzako eta basogintzako ekoizle taldetzat edo horien produktu bat edo gehiagoren batasun edo federaziotzat jo ahal izango dira nekazaritzako kooperatibak, eraldaketako nekazaritza elkarteak eta nortasun juridiko propioa duten bestelako erakundeak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Ekoizleen ekimenez sortuta egon behar dira eta pertsona horiei erakundearen eta bere erabakien kontrol demokratikoa bermatu behar zaie.
- Nortasun juridiko propioa eta beren kideen ondare propioa eta independentea eduki behar dute.
- Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan kokatuta eduki behar dute eta gutxienez taldeko bazkideen %70ek bertan errotatua egon behar dute.
- Taldea eratzen duten bazkide ekoizleetako batek ere ezin du berak bakarrik erakundearen guztirako ekoizpenaren %20a ekoitzi.
- Elkartea eratzen duten taldeetako batek ere ezin du gainerako taldeei batasunaren guztirako ekoizpenetik dagokiena baino %50 gehiago ekoitzi.
- Haien helburuetako bat izan behar da produktuaren ekoizpena eta komertzializazioa batera egokitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegotik datozen produktuak gutxienez %70 izan behar direla.

Beren estatutuetan sartu behar dira, besteak beste, jardueraren lurralde eremua, erakundearen kontrol demokratikoa bermatzen duten arauak, eta bazkideek taldea eratzean xede gisa ezarritako produktua edo produktu taldea ekoizteko obligazioa dutela, bai eta produktua edo produktu taldea zati bat behintzat Taldearen bitartez edo Taldea bitartekari izanda merkaturatzeko obligazioa dutela ere, taldeak ezarritako arauekin. Horretaz aparte, bere organo errektoreetan eta gobernu organoetan emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua egoteko gomendioa ere egingo da, eta pertsona horiek bi hizkuntza ofizialetan trebakuntza nahikoa eduki beharko dutela ere bai.

Nekazaritzako eta basogintzako ekoizle taldeetat eta horien batasuntzat edo federaziotzat onartua izateko eskaera nekazaritzan eta abeltzaintzan eskumena duen zuzendaritzara bidaliko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera. Nekazaritzako eta basogintzako ekoizle taldearen izaeraren onarpen edo ukatze ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez ere, eskaera aurkezten den egunean hasita.

Nekazaritzako eta basogintzako ekoizle taldeak eta horien batasunak edo federazioak urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuak sortutako Nekazaritzako Ekoizleen Taldeen eta beren Batasunen Erregistroan inskribatuko dira. Erregistro hori publikoa izango da eta "Euskal Herriko Nekazaritzako eta Basogintzako Ekoizle Taldeen eta horien Batasun edo Federazioen Erregistroa" deituko da, eta Dekretuan ezarritakora egokituko da.

Ogasun eta Ekonomia

GESTRACAR SL ENPRESAREN MAILEGU-POLIZA BATI LOTUTAKO FIDANTZAMENDUAREN EPEAREN ALDAKETA

Gobernu Kontseiluak Gestracar SL enpresari emandako mailegu-poliza bati lotutako fidantzamenduaren epearen aldaketa baimendu du. Poliza hori 2013. urtean formalizatu zen, berme publikodun ezohiko finantzaketa-lerro bat gaitzen zuen 2012ko uztailaren 5eko Hitzarmenaren (60/40 Hitzarmena) babesean.

Jatorrizko epemuga bost urtez luzatzean eta Eusko Jaurlaritzak emandako fidantzamendua epe berean zabaltzean datza maileguaren nobazioa.

Gainerako erakunde hartzekodunekin batera enpresa horren banku-zorra berriz finantzatzen laguntzea da nobazioaren helburua, enpresaren ordainketa-ahalmena eta ordainketa-betebeharrak hobeto egokitzeko.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAREN ETA UPV/EHUren ARTEKO HITZARMENA BERRITZEA, IKASLEEI ZUZENDURIKO JARDUERA PRAKTIKOAK BURUTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Hezkuntza Sailaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzaz hitzarmena berritzea. Hitzarmen honen ondorioz Batxilergoko eta Lanbide Heziketako, Arte Irakaskuntzetako eta Kirol Irakaskuntzetako Goi Mailako prestakuntza zikloetako ikasleei zuzenduriko jarduerak praktikoak burutzen jarraitu ahal izango da, baita DBHko etapara zuzendutako bestelako orientazio jarduerak ere.

Aipaturiko ikasle horiei zuzenduriko jarduerak praktikoak proposatzeaz eta antolatzeaz UPV/EHUko Fakultateak eta Eskolak arduratuko dira, landu beharreko gaiaren arabera. Jarduerak aurrera eramateko beharrezko diren instalazioak, azpiegitura, materiala eta irakasleak ere eurek hornituko dituzte. Hezkuntza Sailak aldiz, jarduerok burutzeko diru ekarpen bat egingo du. 2018an 74.564 eurokoa da kopuru hori.

Ikastetxeen eta unibertsitate eremuaren arteko hurbilketa errazten duen ekimena izanik hau, eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen unibertsitate ikasketekiko interesa pizten duenez, hitzarmen honen eta beronen bidez burutzen diren jardueren helburuen artean honako hauek nabarmendu daitezke: bokazioak sortzea, eta ikasleei azaltzea aukeratutako jarduerari dagokion unibertsitateko ikasketek zein garrantzi duten egungo gizartean.

Berritze honek dakarren berritasun nagusia honako hau da: hitzarmena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara ere hedatzen dela orain, ikasleei zein orientatzaileei zuzendutako bestelako orientazio jardueren bidez.

3.174 ikasle aurreko ikasturtean

Joan zen 2016-2017 ikasturtean, Euskadiko 147 ikastetxetako 3.174 ikaslek parte hartu zuten UPV/EHUko Fakultate eta Eskolek antolaturiko jarduerak praktikoetan. Orotara 52 jarduerak praktiko burutu ziren, unibertsitate publikoko 16 Fakultate eta Eskolak antolaturik, ezagutzaren bost arlo hauetan: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Humanitatea. Ekimenean azken hiru ikasturteetan parte hartu duten ikasle kopurua 10.555era iristen da.

Hitzarmen berriak urtebeteko indarraldia izango du sinatzen den unetik aurrera, eta urterik urte luzatuko da, gehienez ere beste lau urtean.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2018ko DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, Sail honen 2018 urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan Hezkuntza Sailaren lau Sailburuordetzek eta hamar Zuzendaritzek kudeatzen dituzten diru-laguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, diru-laguntzen bidez, gizartearen intereserako den jardura bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan.

Orotara, 58 diru-laguntza lerro ditu egun Hezkuntza sailak, eta horien kopuru osoa 155.262.436 eurokoa da 2018 urterako. 58 deialdi horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolaratzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak, irakasleen prestakuntzarako deialdiak, ikerketa sustatzeaz arduratzen direnak, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekimendua eskuratzea helburu dutenak edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzera bideratuta dauden diru-laguntzak.

Hezkuntza Sailaren 2018ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Sail honen webgunean kontsultatu ahal izango da osorik, bihartik, urtarrilaren 31tik aurrera.

Gobernanza y Autogobierno

ZUZENEAN, EL SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA DEL GOBIERNO VASCO RESPONDIÓ, EN 2017, MÁS DE 850.000 CONSULTAS, CASI 3.500 AL DÍA

- Aunque el número de atenciones por teléfono, mail y mensajería instantánea de los dispositivos móviles continúa en aumento, la mayoría de ellas sigue registrándose en las oficinas presenciales situadas en las tres capitales
- Las consultas y trámites más frecuentes son sobre temas de vivienda, asuntos sociales y educación
- **ZUZENEAN** nació en 2008 y, hoy, diez años después, está plenamente consolidado como servicio, integral y gratuito, de atención ciudadana del Gobierno Vasco

El servicio de atención ciudadana del Gobierno Vasco, **ZUZENEAN**, en 2017, **respondió 853.418 consultas**, 6.679 más que el año anterior. De media, atendió 3.438 consultas y trámites al día. Un año más, la mayor parte de ellas, un 54,7%, se realizó de manera presencial, seguido del 42,3% que se efectuó a través del teléfono 012 y ya, a distancia, el 2,6% a través del buzón online de www.euskadi.eus, y el 0,4% vía mensajería instantánea desde los dispositivos móviles. Marzo fue el mes en el que se produjo un mayor número de consultas, 93.968, y agosto, en cambio, el que registró la menor cantidad de todo el año, 47.406.

DATOS TOTALES (Por canal)

CANAL	ATENCIONES TOTALES 2017	ATENCIONES DIARIAS 2017	ATENCIONES TOTALES 2016	VARIACIÓN 2016/2017
Presencial	466.945 (54,7%)	1.881 (54,7%)	469.708 (55,5%)	-2.763 (-0,58%)
Telefónico 012	361.406 (42,3%)	1.456 (42,4%)	356.887 (42,1%)	+4.519 (+1,26%)
Buzón electrónico	22.660 (2,6%)	91 (2,6%)	18.462 (2,2%)	+4.195 (+22,7%)
Telegram	2.407 (0,4%)	10 (0,3%)	1.682 (0,2%)	+725 (+43,1%)
TOTAL	853.418 (100%)	3.438 (100%)	846.739 (100%)	+6.679 (+0,78%)

En cuanto al idioma utilizado por las personas usuarias, cabe destacar que el pasado año el número de consultas realizadas en euskera creció un 35,6% en comparación con 2016. El 14,4% de las interacciones se realizó en este idioma, en total 122.892.

El castellano fue el idioma más utilizado en los cuatro canales de interacción, (presencial, telefónico, buzón electrónico y *Telegram*). El uso del euskera, por su parte, es más destacable en el caso de las personas usuarias del 012.

DATOS TOTALES (Por idioma)

IDIOMA	ATENCIÓNES TOTALES 2017	ATENCIÓNES TOTALES 2016	VARIACIÓN 2016/2017
Castellano	707.484 (82,9%)	738.356 (87,2%)	-30.872 (-4,2%)
Euskera	122.892 (14,4%)	90.601 (10,7%)	+32.291 (+35,6%)
Sin especificar	23.042 (2,7%)	17.782 (2,1%)	+5.260 (+29,6%)
TOTAL	853.418 (100%)	846.739 (100%)	+6.679 (+0,78%)

DATOS CANAL (Por idioma)

IDIOMA	PRESENCIAL	TELEFÓNICO 012	BUZÓN ELECTRÓNICO	TELEGRAM
Castellano	420.251 (90%)	263.827 (73%)	20.394 (90%)	2.070 (86%)
Euskera	46.694 (10%)	75.895 (21%)	2.266 (10%)	337 (14%)
Sin especificar		21.684 (6%)		
TOTAL	466.945 (100%)	361.406 (100%)	22.660 (100%)	2.407 (100%)

En cuanto al sexo de las personas usuarias, un año más, las mujeres utilizaron [ZUZENEAN](#) más que los hombres. Lo hicieron en un 57,9% de los casos. Las mujeres realizaron 494.129 consultas, esto es, 161.296 más que los hombres, y 36.043 más que el año anterior.

Por canales, el porcentaje de uso del servicio de atención ciudadana es muy similar tanto entre los hombres, como entre las mujeres

DATOS TOTALES
(Por sexo)

SEXO	ATENCIÓNES TOTALES 2017	ATENCIÓNES TOTALES 2016	VARIACIÓN
Hombre	332.833 (39%)	358.171 (42,3%)	-25.338 (-7,07%)
Mujer	494.129 (57,9%)	458.086 (54,1%)	+36.043 (+7,9%)
Sin especificar	26.456 (3,1%)	30.482 (3,6%)	-4.027 (-13,2%)
TOTAL	853.418 (100%)	846.739 (100%)	+6.679 (+0,78%)

DATOS CANAL
(Por sexo)

SEXO	PRESENCIAL	TELEFÓNICO 012	BUZÓN ELECTRÓNICO	TELEGRAM
Hombre	200.787 (43%)	119.264 (33%)	9.970 (44%)	740 (31%)
Mujer	261.489 (56%)	220.458 (61%)	12.690 (56%)	650 (27%)
Sin especificar	4.669 (1%)	21.684 (6%)		1.011 (42%)
TOTAL	466.945 (100%)	361.406 (100%)	22.660 (100%)	2.407 (100%)

Por territorios, el mayor número de atenciones presenciales de [ZUZENEAN](#) se produjo desde Bizkaia, en las oficinas de Bilbao. En 2017, la cifra ascendió a 246.841 consultas, un 52,9% del total.

DATOS TOTALES
(Por Territorio Histórico/capital)

TERRITORIO	ATENCIÓNES TOTALES 2017	ATENCIÓNES TOTALES 2016	VARIACIÓN
Bizkaia/Bilbao	246.841 (52,9%)	235.325 (50%)	+11.516 (+4,9%)
Gipuzkoa/San Sebastián	115.408 (24,7%)	126.757 (27%)	-11.349 (-8,9%)
Araba/Vitoria-Gasteiz	104.696 (22,4%)	107.626 (23%)	-2.930 (-2,7%)
TOTAL	466.945 (100%)	469.708 (100%)	-2.763 (-0,58%)

MOTIVOS DE CONSULTA

En lo referido al motivo y la materia de la consulta, el 61% de las personas usuarias han recurrido a [ZUZENEAN](#) para pedir información, el 38% lo han hecho para realizar algún trámite y el 1% lo ha utilizado para realizar reclamaciones o sugerencias.

Las materias más habituales sobre las que se realizaron las consultas o trámites son, por este orden:

- ✓ Vivienda
- ✓ Asuntos sociales
- ✓ Educación
- ✓ Seguridad e Interior
- ✓ Gobierno y Administración Pública
- ✓ Trabajo y Empleo
- ✓ Justicia
- ✓ Actividades Económicas
- ✓ Medio Ambiente

10 AÑOS DE ZUZENEAN

[ZUZENEAN](#) es un servicio integral, público y gratuito que nació en 2008. Diez años después, ahora, este servicio se ha consolidado como herramienta de relación de la ciudadanía vasca con la Administración Pública Vasca. Cuenta con una plantilla de 106 personas, de las cuales, 72 trabajan de manera presencial en las tres capitales vascas y 34 responden a las consultas planteadas telefónicamente y por mensajería instantánea.

El crecimiento en 10 años ha sido exponencial y, hoy en día, atiende ya a través de cuatro canales: presencial (*tres oficinas en las tres capitales*), telefónico (012), buzón online (www.euskadi.eus) y mensajería instantánea (*Telegram a través del número 688 67 12 34*)

La evolución del servicio de [ZUZENEAN](#) es un objetivo de la presente legislatura. El Gobierno Vasco se plantea el reto de mejorar, tanto la calidad percibida por la ciudadanía en su interacción con la Administración, como la de la propia gestión interna, y la coordinación de los diferentes agentes que intervienen. Una de las iniciativas que contempla el “*Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública 2020*” dentro de sus seis ejes de actuación es, precisamente, desarrollar y mejorar [ZUZENEAN](#), facilitando a las personas el acceso a los servicios y garantizando un efectivo servicio multicanal.

Gobernanza y Autogobierno

EL DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO APRUEBA Y PUBLICA EN LA WEB EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES PARA 2018

- El documento de trabajo contempla 6 líneas de subvención y 2 premios cuyo importe global para este año asciende a casi 12 millones de euros
- Entre las convocatorias, destacan las ayudas a la ejecución de obras y servicios en los municipios de Euskadi, el canon para promocionar Vitoria-Gasteiz como sede de las instituciones comunes y los premios *Elkarlan* y *Opendata Euskadi*

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el *Plan Estratégico de Subvenciones 2018* del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno. Este documento es un instrumento de gestión, de carácter programático, con el que el departamento planificará políticas públicas que fomenten actividades relacionadas con las materias de su competencia, mejorará la eficacia y eficiencia de las subvenciones, y posibilitará el acceso a la información pública desde la transparencia y las prácticas del buen gobierno.

El documento recoge la totalidad de las convocatorias de subvenciones y de los premios que se convocarán desde las diferentes áreas de gestión del departamento. Son, en total, 6 líneas de subvención y 2 premios cuyo **importe global para el año 2018 asciende a los 11.932.000 euros**, y que buscan, sobre todo:

- Promocionar y mejorar las infraestructuras y servicios de las administraciones locales
- Apoyar el estudio y difusión entre los agentes jurídicos del Derecho civil foral y especial de Euskadi
- Mejorar la eficiencia en la gestión administrativa, implantando nuevos modelos de gestión

SUBVENCIONES Y PREMIOS 2018

Entre las convocatorias de subvención en el área de las administraciones locales, destaca el canon de Vitoria-Gasteiz como sede de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dentro del convenio firmado con el ayuntamiento de la capital alavesa, el plan destina una subvención de 10 millones de euros -con previsión de 20 millones más en 2019 y 2020-, a financiar la promoción de la ciudad. En esta área de trabajo, además, se

convocarán ayudas para la ejecución de obras y servicios municipales por importe de 1.900.000€.

Están incluidas, igualmente, la financiación de actuaciones destinadas a profundizar en el conocimiento académico y especializado del Derecho civil foral y especial del País Vasco (8.000€).

El documento recoge, también, la convocatoria de los *Premios Opendata Euskadi 2018* (6.000€), para dar a conocer la existencia y potencial del sitio web Open Data Euskadi, y fomentar la utilización de los datos abiertos y la generación de servicios derivados de los mismos. Y los *Premios Elkarlan 2018* (18.000€) que buscan visibilizar el valor público creado por la ciudadanía organizada, a través de proyectos de participación ciudadana.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 350.000 EUROS A ASOCIACIONES DE FOMENTO DE RAZAS GANADERAS PURAS

- **Que trabajen en la selección de especies de producción láctea y cárnica y en la conservación de razas en peligro de extinción**
- **Se financiará la participación en certámenes ganaderos, la creación y gestión de libros genealógicos y las pruebas de calidad y rendimiento**
- **Estas ayudas se enmarcan en la política de apoyo a la cadena de valor agroalimentaria, desde la ganadería de calidad, pasando por el mantenimiento de la biodiversidad y llegando a una alimentación sana y sostenible**

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado, en su última reunión, la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por el que se convocan para el año 2018 las ayudas a asociaciones y organizaciones ganaderas de razas puras de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Con un montante total de 350.000 euros, se financiará la participación en certámenes ganaderos, la creación y gestión de libros genealógicos y las pruebas de calidad y rendimiento.

Estas ayudas, gestionadas por la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria, se enmarcan en la decidida política de apoyo a la cadena de valor agroalimentaria, desde la ganadería de calidad, pasando por la biodiversidad en el entorno rural y hasta alcanzar una alimentación sana y sostenible, pilares básicos que se recogen en el Plan Estratégico de Gastronomía y Alimentación (PEGA) que marca las líneas troncales de actuación en estos campos para la presente legislatura.

Convocadas en el marco del Decreto aprobado el pasado 24 de octubre, están destinadas a las asociaciones ganaderas que gestionan los libros genealógicos de razas puras, ejecutando los programas de mejora (conservación o selección), difundiendo y promocionando la raza y haciendo un control de rendimientos y una evaluación de su valoración genética.

Asimismo, estas asociaciones difunden los resultados obtenidos y ayudan en la comercialización de los animales y sus productos, permitiendo alcanzar una mayor eficacia en la producción y una mayor rentabilidad de las explotaciones ganaderas. También colaboran en el desarrollo e impulso de las zonas rurales y de agricultura de montaña del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca. Entre las entidades beneficiarias también están las asociaciones que trabajan con razas autóctonas, algunas de las cuales están en peligro de extinción y

necesitan un tratamiento diferenciado para su conservación y mantenimiento de su variabilidad genética.

Beneficiarios y actividades subvencionables

Podrán acogerse a las subvenciones previstas en esta disposición las asociaciones ganaderas de razas puras que operen en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca y estén inscritas en el Registro de Asociaciones de Fomento de Razas Animales. Estas asociaciones deberán estar reconocidas para llevar el libro genealógico y deberán cumplir con las disposiciones de conservación, mejora y fomento de las razas autóctonas vascas, y de regulación de las entidades de fomento de razas animales. Afectará a las principales razas de producción láctea y cárnica, y a la inmensa mayoría de las razas autóctonas en peligro de extinción.

Las actividades subvencionables serán:

- Gastos de organización y participación en certámenes ganaderos
- Gastos de creación o mantenimiento de libros genealógicos
- Gastos de pruebas de calidad genética o rendimiento del ganado.

El plazo de presentación de las solicitudes para acogerse a esta convocatoria será de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Las solicitantes deberán presentar las solicitudes por canal electrónico. La resolución se dictará y notificará en el plazo máximo de seis meses desde que surta efectos la Orden.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO REFUERZA SU APOYO A LAS AGRUPACIONES DE PRODUCTORES AGRARIOS Y FORESTALES QUE PERMITAN MEJORAR LA COMERCIALIZACIÓN Y AUMENTAR LA CAPACIDAD NEGOCIADORA DEL SECTOR

- **Ha aprobado una nueva regulación que da entrada a las agrupaciones del sector forestal**
- **El Plan Estratégico de la Gastronomía y la Alimentación (PEGA) puesto en marcha por el Departamento de desarrollo Económico e Infraestructuras, tiene entre sus principales objetivos la mejora de la comercialización de los productos agroalimentarios vascos**

El Gobierno Vasco viene apoyando desde diferentes ámbitos la constitución y funcionamiento de agrupaciones de productores agrarios y sus uniones o federaciones, ya que considera ésta una manera eficaz de mejorar la comercialización de los productos, y de conseguir aumentar la capacidad de negociación del sector productor en la formación de valor de la cadena alimentaria. El último paso dado en este sentido ha sido la aprobación del Decreto de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por el que se regulan las normas básicas aplicables a las mismas.

El ejecutivo autónomo considera necesario estimular e incentivar la reagrupación de las personas agricultoras y forestalistas con objeto de **estimular el desarrollo económico del sector primario por medio de la acción común dirigida a concentrar la oferta y a adaptar la producción a las exigencias del mercado**, así como establecer un adecuado control y comprobación que su agrupación se realiza con garantías suficientes en cuanto a su estabilidad y eficacia. Esta premisa se enmarca en las líneas definidas en el Plan Estratégico de la Gastronomía y la Alimentación (PEGA) puesto en marcha por la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria, que tiene entre sus principales objetivos la mejora de la comercialización de los productos agroalimentarios vascos.

Todo lo anterior conlleva la necesidad de contar con **un régimen jurídico adecuado y aplicable al reconocimiento de las agrupaciones de personas productoras para adaptarse a los tiempos y para dar entrada a las agrupaciones del sector forestal y recoger sus circunstancias**.

Así, según el decreto ahora aprobado, podrán ser reconocidas como agrupaciones de personas productoras agrarias y forestales, y sus uniones o federaciones, de uno o varios productos o grupos de productos, las cooperativas, las sociedades agrarias de transformación y cualesquiera otras

entidades con personalidad jurídica propia, que cumplan las siguientes condiciones generales:

- Que se creen por iniciativa de las personas productoras y que garanticen a dichas personas el control democrático de la organización y de sus decisiones.
- Que tengan personalidad jurídica propia y patrimonio propio e independiente de sus miembros.
- Que tengan ubicada su sede social en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y que al menos el 70 % de las personas socias de la agrupación estén radicadas en ella.
- Que ninguna de las personas productoras individuales socias que integren la Agrupación supere por sí sola el 20 % del volumen total de la producción de la entidad.
- Que ninguna agrupación que las integren tenga un porcentaje sobre el conjunto de toda la producción de la unión que supere en 50 puntos al resto de agrupaciones.
- Que entre sus fines figure el de adaptar en común la producción y la comercialización del producto, y que los productos sean procedentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco en al menos un 70 %.

En sus estatutos se debe incluir, entre otros aspectos, el ámbito territorial de actuación, las normas que garanticen el control democrático de la organización, la obligación de sus personas socias de producir el producto o grupo de productos para el que se constituyen en agrupación, y de comercializarlos, al menos en parte, a través de la Agrupación, o con su intermediación, con las reglas que se establezcan por la agrupación, la recomendación de que en sus órganos rectores y de gobierno exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres, y con suficiente capacitación en las dos lenguas oficiales.

La solicitud para ser reconocida como agrupación de personas productoras agrarias y forestales, y sus uniones o federaciones, se dirigirá a la dirección competente en materia de agricultura y ganadería, de conformidad con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de la Administraciones Públicas. La resolución de reconocimiento o denegación de la condición de agrupaciones de personas productoras agrarias y forestales, se dictará y notificará en el plazo máximo de seis meses desde el día de la presentación de la solicitud.

Las agrupaciones de personas productoras agrarias y forestales, y sus uniones o federaciones, se inscribirán en el Registro de Agrupaciones de Personas Productoras Agrarias y sus Uniones creado por el Decreto 13/2004, de 20 de enero. Dicho registro será público y pasará a denominarse “Registro de Agrupaciones de Personas Productoras Agrarias y Forestales, y Sus Uniones o Federaciones, del País Vasco”, y se adaptará a lo dispuesto en el Decreto.

Hacienda y Economía

MODIFICACION DEL PLAZO DEL AFIANZAMIENTO VINCULADO A UNA PÓLIZA DE PRÉSTAMO DE LA EMPRESA GESTRACAR S.L.

El Consejo de Gobierno ha autorizado la modificación del plazo de afianzamiento vinculado a una póliza de préstamo concedida a la empresa "Gestracar S.L. que fue formalizada el año 2013 al amparo del Convenio de 5 de julio de 2012 (Convenio 60/40) por el que se habilitaba una línea de financiación extraordinaria con garantía pública.

La novación del préstamo consiste en la ampliación en cinco años del plazo de vencimiento original autorizando el Gobierno Vasco la extensión en igual plazo del afianzamiento concedido.

El fin de la novación es colaborar con el resto de las entidades acreedoras en la refinanciación de la deuda bancaria de dicha empresa con el objeto de favorecer una mayor acomodación entre la capacidad de pago de aquella y sus obligaciones de pago.

Educación

RENOVACIÓN DEL CONVENIO ENTRE EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y LA UPV/EHU PARA LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES PRÁCTICAS DIRIGIDAS AL ALUMNADO

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la renovación del convenio de colaboración existente entre el Departamento de Educación y la UPV/EHU. En virtud de este acuerdo se seguirán realizando actividades prácticas dirigidas al alumnado de Bachillerato y Ciclos Formativos de Grado Superior de Formación Profesional, Enseñanzas Artísticas y Enseñanzas Deportivas, así como otras actividades de orientación dirigidas a la etapa de Educación Secundaria Obligatoria.

Las actividades prácticas dirigidas al citado alumnado serán propuestas y organizadas por las Facultades y Escuelas de la UPV/EHU, en función de la temática a tratar, y serán ellas quienes proporcionen las instalaciones, infraestructuras, materiales y el profesorado necesario para su desarrollo. El Departamento de Educación, por su parte, dotará anualmente de una cantidad económica para la realización de las actividades, que para este año 2018 asciende a 74.564 euros.

Se trata de actividades que propician un acercamiento de los centros escolares al entorno universitario, potenciando así el interés del alumnado de Educación Secundaria en los estudios universitarios. Por tanto, este convenio de colaboración –y las actividades prácticas que mediante él se realizan- busca, entre otros objetivos, despertar vocaciones y explicar al alumnado la importancia que tienen en la sociedad actual los estudios universitarios a los que se hace referencia en la actividad seleccionada.

La principal novedad que se introduce con la renovación es que el convenio se amplía a la etapa de la Educación Secundaria Obligatoria, para la realización de actividades de orientación dirigidas tanto a alumnado como a personal de orientación.

3.174 estudiantes el pasado curso

El pasado curso 2016-2017, participaron en las actividades prácticas organizadas por las Facultades y Escuelas de la UPV/EHU un total de 3.174 alumnos y alumnas de etapas pre-universitarias de 147 centros educativos de Euskadi. Se desarrollaron 52 actividades prácticas, organizadas por 16 Escuelas y Facultades de la universidad pública, en cinco ramas de conocimiento: Ciencias; Ingeniería y Arquitectura; Ciencias de la Salud; Ciencias Sociales y Jurídicas; Artes y Humanidades. El número de estudiantes que ha participado en la iniciativa en los últimos tres cursos asciende a 10.555. El nuevo convenio tendrá una duración de un año a partir de la firma del mismo, prorrogándose de forma automática anualmente, hasta un máximo de cuatro años adicionales.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN APRUEBA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2018

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, el Plan Estratégico de Subvenciones 2018 del Departamento de Educación. El documento recoge la totalidad de las convocatorias de subvenciones gestionadas por las cuatro Viceconsejerías y las diez Direcciones del Departamento de Educación, y concreta los objetivos y efectos que se buscan con su aplicación.

El Plan, de carácter programático, se configura como un instrumento de planificación de la política del Departamento de Educación en las áreas de actuación que tienen por objeto el fomento de actividades de interés social, mediante la concesión de subvenciones.

En total, el Departamento de Educación tiene actualmente 58 líneas subvencionales, cuyo importe global para el año 2018 asciende a los 155.262.436 euros. Entre estas 58 convocatorias destacan las becas y ayudas para la escolarización, las becas universitarias, aquellas destinadas a favorecer la movilidad del alumnado –tanto universitario como de Formación Profesional-, las dirigidas a la formación del profesorado, las que se ocupan del fomento de la investigación, las que tienen por objeto la adquisición de equipamiento para centros de FP o las dirigidas al acondicionamiento de instalaciones escolares de titularidad municipal, entre muchas otras.

El documento íntegro del Plan Estratégico de Subvenciones 2018 del Departamento de Educación se podrá consultar a partir de mañana, 31 de enero, en la página web del Departamento de Educación.